

ONDARROA. Ikasturtean, alkar ezagutzeko ekimenak egiten dira



Lehen hezkuntzako irakasleak izan dira Ondarroara etorri diranak.

Txomin Agirre ikastolak hurreratu egin dau Europa

Gales, Frantzia, Alemania eta Italiako irakasleak berton izan dira

Lore Bengoetxea |

Txomin Agirre ikastolak gonbidatuta, Europako lau herritako irakasleak Ondarroan egon dira azkenengo egunotan. Esperientzia on-ontzat jo dau ikastetxe-ko zuzendari Javier Bahonek.

Bisita Socrates programaren barruan sartzen da. Orain dala urte bi ipini eben martxan. Txomin Agirre ikastolagaz batera, bertan dira Italiako Carrara, Frantziako Grasse, Alemaniako Ingolstadt eta Gales. Ondarroatarrei lehenengo aldiz etxeko izatea egokitu jaken urtarilaren 24tik 28ra. «Taldea polita izan da. Hartu-emon on-ona sortu da geure artean», esan dau zuzendariak.

«Helburua da bisitatzen dogun herriko kultura ezagutzea.

Herri bakotzak daukan hezkuntza eredutik ikastea», adierazo dau Bahonek.

Helburu horretxegaz etorri ziran Lehen Hezkuntzako lau eta bosgarren mailako hainbat irakasle. Dana dala, urte guztiko beharra dala dino Txomin Agirrekoak. «Aurretik, aurkezpen modura, gabonetako ohituraren barri emon geuntsan, eta orain inauterien ganean be informazinoa trukatu dogu alkarren artean. Halan danok aberasten gara, ze ideiak jasoten doguz, bata bestegandik».

Informatika

Ikasleek hainbat gairen ganean beharrak egiten ditue: horreen artean, jarduera ekonomikoa, kale tipikoen aurkezpena, eta

ohiturak. Beste alde batetik, hartu-emonak sakondu nahirik, aurrerapausoa egin dabe informatikaren atalean. «Orain danok daukaguz web kamarak. Hurrengo kontaktua bideo-konferentziaren bitartez egingo dogu», azaldu dau Bahonek.

«Asmoa da Europagaz lotura handiagoa eukiteko ikasleen arteko harremanak egunerokoak izatea, eta hizkuntzak lantzea». Komunikaziorako bidea inglesa da. «Hori gehiago zaintzeko, hizkuntza eta komunikabide gela sortu dogu». Bertan dagoz web kamerak, eta eurekin batera multimedia barriak. Irakurketarako eta ikusentzuteko txokoak be atondu dabez, hizkuntza lantzeko daukien helburua bete nahirik.

LEA ARTIBAI. UEMAn dagozan herrietako komertzioei zuzenduta dago

«Euskara merkataritzara» kanpaina martxan jarri dau Foru Aldundiak martira bitartean

L.B. |

Bizkaiko Foru Aldundiak «Euskara merkataritzara» kanpaina jarri dau martxan. Bertan sartu dira UEMaren barruan dagozan udalerriak. Helburua da merkataritzan erderaz egiten dana identifikatu eta euskaraz egitera animatzea.

Zeregina SIADECO ikerketa

taldeari emon jako. Ondarroako Udal Euskera Batzordeko teknikari Maite Reyk esan dabez, «batez be hizkuntza paisajea euki nahi da eragina, beste gauza batzuen artean, kartel, ohar, prezio eta txarteletan». Inertziagaz apurtu eta euskara pasatzea nahi da.

Azterketa egiten dabenak bi bidar joango dira denda bako-

txera, batean datuak jasoteko, eta bestean Udalek emoten dauan laguntzagaz informazinoa emoteko. Kanpaina martira bitartean gauzatuko da. Aurretik gutuna bidalduko jake merkatariei programaren barri euki daien. Ondarroarentzat ez da esperientzia barria izango. Herri horretan, 1993an be egin zan, eta urte bi iraun eban.

Radixu irratiak datozan hiru hilebeteotako egitarauaren barri emon dau

L.B. |

Radixu irrati libreak ezagutzera emon dau datozan hiru hilebeteotako programazinoa. Tartean, gauza barriak be badagoz.

Martitzenetan, hamabostean behin, *Kantuk eta Kontuk* irratsaioa egongo da gaueko 22:30etik 23:30era. *Azken mohikanoak* programak eguaztenetan eskainiko dau bere tarte, ohitura dan lez. Eguenean *Hilbehera* irratsaioaren ordua ailegatuko da, eta barikuan *Ying Yang* programarena. Martitzenetik eguenera, gaueko 22:00eta-

tik 24:00etara izango dira saioak. Zapatuan goizeko 09:00etatik 10:30era *Terranobako salau*-ren txanda izango da. *Aide Globun* zine programak hartuko dau lekukoa jarraian, eguerdiko 12:00ak arte. *X jauna*-k 13:00ak artekoa egingo dau. Egunkoia amaitzeko, *Kirol Krak* 15:00etatik 16:00etara entzuteko aukera egongo da.

Domeketan *Sustrai erreak* irratsaioak bere tarte eukiko dau 12:00etatik 14:00etara. Iluntze partea *Ixikon gantari* irratsaioak beteko dau. Saioa 20:30etik 22:00era botako da.

LEA IBARRA. Jaia abuztuaren 12an izango da

Marrazki lehiaketa antolatu dabe Leatarren egunean kamisetak kalera aterateko

L.B. |

Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoak marrazki lehiaketa antolatu dau. Irabazten dauan beharragaz kamisetak aterako ditue Leatarren egunean. Jaia abuztuaren 12an izango da.

Beharrek testu hau euki beharko dabe: «Leatarren eguna. Mendexa 2001». Interesatuek hilaren 23 arteko epea daukie euren proposamenak aurkezteko. Lanak Lea Ibarreko Udaletxeetan aurkeztu leitekez.

Irabazten dauana 75.000 pezetako sariaz jabetuko da. Horrezaz ganera, Leatarren

egunean kalera aterako diran kamisetetan ikusi ahal izango dau beraren beharra.

Beste alde batetik, zehaztu da noiz izango dan aurtengo Leatarren eguna. Azkenengo batzarrean erabagi zanez, abuztuaren 12an batuko dira Lea Ibarreko udalak, euren eguna ospatzeko. Oraindino egitaraua lotu barik badago be, nondik nora joko dauan esan dabe. Halan, goizean azoka eta erakusketak izango dira, eguerdian herri bazkaria eta arratsaldean ume-entzako ekimenak. Herri kirol olinpiadak eta erromeriak be tarte hartuko dabe jai egun horretan.

AGENDA

LEA-ARTIBAI

Txernobil Alkartea: Familien laguntza eskatu da, Txernobilgo hondamen nuklearrean kalteak jasandako ume bat edo gehiago jaso daien. Umeak garagarrean eta abuztuan egongo dira Euskal Herrian. Informazinoa gehiago, Udal Gizarte Ongizate zerbitzuetan.

Sinadura batzea: EHEK antolatuta, sinadura batzea egingo da justizia barruti osoan, zezeilean eta martian. Justizia euskalduna izateko eskubidea eskatuko da.

LEKEITIO

Kultur egitarauan agertzeko epea: Aittitta Txiki Kultur Alkartearen informazinoa diptikoan zeozer ipini nahi dauanak hilaren 28ra arteko epea dauka.

Ekiemen barri Kultur Alkartearen buzoian (Nautikan) edo Udaletxean laga behar da.

Andren eskulan tailerra: Oleo teknikak ikasteko ikastaroa, martitzen eta eguenetan, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara Trinkete Etxean.

Peña Urrutia-Athletic-en deia: Bazkidetza ordaintzeko epea hilaren 28an amaituko da. Urteko kuota, 3.000 pezeta..

ONDARROA

Ondarroako Hiria I. Rock lehiaketa: Radixu irratiak eta Udal Musika Eskolak antolatuta. Lea-Artibaiko taldeek eta Deba eta Mutrikukoek hartu leikie parte. Maketak Udal Musika Eskolako idazkaritzan aurkeztu behar dira, 28rako.

Korrika kulturala: Asisko Urmeneta komikilari naparraren eskutik, «Zazpiak bat BATMAN hitzak aspertz» saioa eskainiko da, 19:30ean Guzurr Etxean.